




ESTADÍSTIKA

Artxiboak
2009



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Aurkibidea

Sarrera metodologikoa	3
1. ARTXIBOEN MAPA	6
2. ARTXIBOEN OINARRIZKO EZAUGARRIAK	8
2.1. Dokumentazioa	8
2.1.1. Deskribapenerako tresnak	11
2.2. Azpiegitura	12
2.3. Enplegua	14
3. JARDUERA	18
3.1. Barneko jarduera	18
3.2. Erabiltzailearentzako zerbitzuak	19
3.2.1. Kontsultak	19
3.2.2. Hezkuntza/kultura alorreko eta dibulgazioko ekitaldiak	21

SARRERA METODOLOGIKOA

Artxiboen Estatistika Kulturaren Euskal Behatokiak egindako jarduera estatistikoaren barruan kokatzen da. Izan ere, KEBen ardatz estrategikoen artean dago, besteak beste, kultura eta komunikazio alorreko estatistika-sistema partekatu bat diseinatu eta garatzea, kultura- eta komunikazio-eragile publiko nahiz pribatuen bilakaeraren jarraipena egin eta erabakiak hartu ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Artxiboen sektorearen errealitatea ezagutzea da ondarearen alorrean kokatzen den estatistika horren helburu nagusia. Hala, eragileen mapa definitu eta euren egoera eta jarduera ezaugarritu nahi dira.

EAEn halako estatistika egiten den lehen aldia da. Horregatik, operazioa bera diseinatzeak eta eragileen errolda prestatzeak eskatu dute ahalegin handiena. Hori lortzeko, IRARGI, Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroaren laguntza eskergaitza izan dugu, batez ere definizioak kontrastatu, galdetegiak diseinatu, errolda araztu eta sektorearen berezitasunak ezagutzeko.

Artxiboen lehen estatistika honek 2009. urteari buruzko informazioa jaso du, eta hainbat azterketa egiteko oinarritzat balio izango du. Alde batetik, beste lurralde batzuekiko analisi konparatiboak egiteko aukera eskainiko du; beste alde batetik, eta bi urtean behin egingo denez, denbora-azterketak egin ahalko dira, Euskadin sektoreak duen bilakaera ikusteko.

Fitxa teknikoa

Operazioaren izena
Artxiboen Estatistika - 2009
Operazioaren estatusa
Eustatek ofizialdua
Maiztasuna
Bi urtean behin
Operazio-mota
Errola-operazioa
Informazioa jasotzeko aldia
2009ko abendua - 2010eko ekaina
Informazioaren erreferentziako urtea
2009
Landa-lana egiteaz arduratu den enpresa
Append Investigación de Mercados
Elkarte laguntzaileak
IRARGI

Definizio kontzeptualak eta tipologia

Artxiboei buruzko azterketaren irismena zedarritzeko, Artxibo Zerbitzuaren definizio orokorra erabili dugu oinarritzat, eta hainbat eskakizun ezarri zaizkio gero, txosten honetako estatistika-errolan sartzeko.

Artxibo Zerbitzuaren definizioa:

Bildutako agiri eta artxibo-funtsen tratamendu teknikoaz, kontserbazioaz, balorazioaz eta hedapenez arduratzen den unitate administratiboa.

Estatistika-errolan sartzeko eskakizunak:

Funtsaren osaera

Balio iraunkorra duten agiriak, hau da, agiri historikoak edo historiko-administratiboak biltzen dituzten Artxiboak. Agiri administratiboak baizik biltzen ez dituzten artxiboak erroldatik kanpo gelditu dira.

Sarbide publikoa

Dokumentazio-funtsa eskuratu eta kontsultatzeko bidea araututa duten artxiboak.

Pertsona eraginkorra

Zerbitzuaz arduratzen diren langileak dituzten artxiboak.

Aipatutako eskakizunetan oinarrituz artxiboak aztertu ondoren, errolda hori araztu egin da -estatistika-interesa kontuan hartuta- eta, azkenean, honako artxibo-motetan sailkatutako artxiboak sartu dira:

- Estatuaren Artxiboak
- Administrazio Autonomikoaren Artxiboak
- Tokiko Administrazioaren Artxiboak (*Foru aldundiak/ Udalak*)
- Korporazio ofizialen Artxiboak (*Instituzio akademikoak / Elkargo profesionalak / Beste batzuk*)
- Elizaren Artxiboak
- Artxibo pribatuak (*Elkarteak eta fundazioak / Enpresak / Beste batzuk*)

Errolda eta erantzun-maila

Artxiboen Estatistikaren erroldak 302 artxibo hartu ditu guztira, eta % 94,7ko erantzun-maila lortu da.

1. ARTXIBOEN MAPA

EAEEn 302 artxibo zenbatu dira, erroldan sartzeko eskakizunak betetzen dituztenak. EAEko artxibo-zerbitzuak sei talde handitan egituratzen dira: Estatuaren Artxiboak (5 artxibo); Administrazio Autonomikoarenak (7 artxibo); Tokiko Administrazioarenak (261 artxibo); korporazio ofizialenak (10 artxibo); Elizarenak (5 artxibo); eta pribatuak (14 artxibo).

Lurraldeka banatuta, Bizkaian 132 artxibo daude (% 43,7), Gipuzkoan 106 artxibo (% 35,1) eta Araban 64 artxibo (% 21,2). Arabaren kasuan, bereizitasun bat azpimarratu behar da, hau da, EAEEn dauden kuadrilla- edo eskualde-artxibo guztiak (6) bertan biltzen direla.

Errolda osatzen duten 302 artxiboen banaketak adierazten duenez, EAEko artxiboen % 86,4 Tokiko Administrazioarena da, batez ere Udal titulartasunekoa¹.


1. irudia. Artxiboak, artxibo-motaren eta lurraldearen arabera. 2009.

MOTA	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	
				Frek.	%
Estatuarenak	1	2	2	5	1,7
Admin. autonomikoarenak	2	2	3	7	2,3
Instituzional orokorra	1	1	0	2	0,7
Sail mailakoa	0	0	1	1	0,3
Osakidetza	1	1	2	4	1,3
Tokiko Administrazioarenak	58	89	114	261	86,4
Foru Aldundiak	1	2	2	5	1,7
Udalak	51	87	112	250	82,8
Kuadrillak	6	0	0	6	2,0
Korporazio ofizialenak	1	3	6	10	3,3
Korporazio ofizialenak	0	2	3	5	1,7
Elkargo profesionalak	1	1	3	5	1,7
Elizarenak	1	3	1	5	1,7
Pribatuak	1	7	6	14	4,6
Elkarteak eta fundazioak	1	7	5	13	4,3
Enpresak	0	0	1	1	0,3
Guztira	64	106	132	302	100,0

¹ EAEEn, honako hau da banaketa, udalerriei dagokienez: 112 udalerrri Bizkaian, 88 udalerrri Gipuzkoan eta 51 udalerrri Araban. (Informazio-iturria: EUSTAT, 2008). Ikerlan honetan ez da zenbatu Gipuzkoako Toki Administrazioaren artxiboetako bat, ez duelako dokumentazio historikorik eta, beraz, ez duelako betetzen erroldan sartzeko baldintzetako bat.

Artxiboak tipologiaren eta lurraldearen arabera sailkatuz gero, azpimarratu egin behar da Elizaren Artxiboak Gipuzkoan biltzen direla (% 60), eta Korporazio ofizialenak Bizkaian (% 60).

2. irudia. Artxiboen banaketa lurraldeka, artxibo-motaren arabera. 2009.



2. ARTXIBOEN OINARRIZKO EZAUGARRIAK¹

EAEko artxibo-sistemak helburu komun batzuk ditu: dokumentazio-ondarea bildu, antolatu, ebaluatu, kudeatu eta hedatzea. Halere, badira aldeak antolaketaren, funtzionamenduaren edo eskura dituzten baliabideen inguruan. Askotan, artxiboaren tipologia bera dago desberdintasun horien oinarrian.

Hala, artxiboak ezaugarritzeko unean, dokumentazioa, azpiegitura eta esleitutako giza baliabideak hartuko dira kontuan.

2.1. DOKUMENTAZIOA

EAEko artxiboek 284.652 ml dokumentazio dute, 6.851 funtsetan banatuta guztira. Dokumentazio-bolumen handiena Tokiko Administrazioaren artxiboetan dago (150.922 ml), bertan biltzen baita EAEko artxiboetan dagoen dokumentazioaren % 53 eta funtsen % 70.

Garaiari erreparatuz gero, artxiboetako dokumentazioa honela sailkatzen da: agirien % 17,3 XXI. mendekoa da, % 71,8 XX. mendekoa, eta gainerako % 10,9, horren aurretikoa.

Elizaren artxiboek gordetzen dute dokumentazio zaharraren proportzio handiena (haien dokumentazioaren % 76,9 XX. mendea baino lehenagokoa da) eta, ondorioz, Gipuzkoan dago halako dokumentazioaren bolumen handiena, bertan biltzen direlako Elizaren artxibo gehienak.


3. irudia. Artxiboetako dokumentazioa, artxibo-motaren arabera*. 2009.

DOKUMENTAZIOA	XX. m. baino lehenagokoa (ml)	XX. m. (ml)	XXI. m. (ml)	ml guztira	Funtsak (unitateak)
Estatuarenak	1.054	5.028	1.264	7.345	54
Autonomikoak	2.760	50.961	14.310	68.031	32
Tokiko Administrazioarenak	17.156	102.041	31.725	150.922	4.521
Korporazio ofizialenak	301	11.522	762	12.584	699
Elizarenak	7.960	2.334	63	10.357	1.334
Pribatuak	1.907	32.392	1.114	35.412	213
Guztira	31.137	204.277	49.238	284.652	6.851


* Korporazio ofizialen artxiboetako bateko dokumentazioa ez da sartu kalkuletan, ez delako erantzunik jaso eta ezinezkoa izan delako datuak zenbatzea, haren berezitasuna dela-eta.

¹ Ezaugarrien atalean ez da sartu artxibo pribatuetako baten daturik, ez delako erantzunik eman eta, haren berezitasuna dela-eta, ezinezkoa izan delako zenbatete-prozesua ezartzea.


4. irudia. Dokumentazioaren banaketa, artxibo-motaren arabera. 2009.



5. irudia. Dokumentazio-motaren banaketa, artxibo-motaren arabera. 2009.



6. irudia. Dokumentazio-motaren banaketa, lurralde historikoaren arabera. 2009.



Beste aldetik, artxibo batzuek dokumentazio berezia dute. Hau da, haien izaera berezia dela-eta, metro linealetan zenbatu ezin den dokumentazioa dute. Horrelako agiriak dira, adibidez, argazkiak, kartografiak, ikus-entzunezkoak, etab.

Estatistika honetan ikusi da 10 artxiboetatik 6k dokumentazio berezia dutela, 2.619.242 unitate guztira, horietatik % 78,9 argazki-materiala.


Gainera, azpimarratu egin behar da korporazio ofizialen artxiboek 100.000 unitate inguru dituztela soinu-erregistroetan, eta Tokiko Administrazioaren artxiboetan antzeko kopurua dagoela txarteletan eta kartografian.

Azpimarratu egin behar dugu agiri bereziak artxibo zehatzetan biltzen direla, haien ezaugarriak direla-eta. Horregatik, ez da harritzekoa ikus-entzunezko agirien % 94 Euskadiko Fimategiaren artxiboan egotea, eta soinu-artxiboen % 95,8 Eresbilen, musikaren euskal artxiboan. Bestalde, marrazki teknikoak % 73,5 Bizkaiko Foru Aldundiaren Artxiboan dago, eta grabatuak % 70 Foru Aldundi beraren Artxibo Historikoan.

7. irudia. Dokumentazio berezia, artxibo-motaren arabera. 2009.

DOKUMENTAZIO BEREZIA	Estatuarenak	Autonomikoak	Tokiko Administrazioarenak	Korporazio ofizialenak	Elizarenak	Pribatuak	Guztira
Pergaminoak	144	16	1.090	21	958	454	2.683
Zigiluak, eskuizkribuak eta beste agiri batzuk	12	361	1.890	225	370	5.189	8.047
Grabatuak	93	94	3.710	10	130	236	4.273
Argazkiak	15.883	13.449	1.635.034	53.169	49.291	299.959	2.066.785
Biltegiatze elektronikoko agiriak	80	892	16.067	13.952	1.453	6.007	38.450
Ikus-entzunezko agiriak	321	16	1.559	13.180	311	4.091	19.477
Mikrokopiak	460	14.729	1.424	17.167	2.323	3.568	39.671
Soinu-erregistroak	20	639	1.899	95.776	41	1.956	100.331
Txartelak	126	1.424	36.836	2.735	56.484	19.736	117.341
Kartografia	1.200	1.832	62.791	1.253	102	2.575	69.753
Marrazki teknikoak	448	448	18.765	4	30	34	19.729
Postalak	3.586	494	16.557	515	0	5.956	27.108
Besterik (prentsa-zatiak, pegatinak, partiturak, etab.)	0	0	16.748	35.476	19701	33.667	105.592
Guztira	22.373	34.394	1.814.370	233.483	131.194	383.428	2.619.242
Batez bestekoa	4.474,6	4913,4	6951,6	23.348,3	26.238,8	27.387,7	8.701,8

8. irudia. Dokumentazio bereziaren banaketa, artxibo-motaren arabera. 2009.



2.1.1. Deskribapenerako tresnak


Artxiboen % 82,4k deskribapenerako tresnak ditu, hau da, informazioa bildu, aztertu, antolatu eta erregistratu egin dute, dokumentazioaren kudeaketa integralerako mekanismo objektibo bat lortzeko.

Guztira 4.467 deskribapenerako tresna daude: inbentarioak (% 42,4), datu-baseak (% 18,5), katalogoak (% 4,3) eta gidak (% 0,9). Gainerako % 33,9 bestelako tresnak dira. Deskribapenerako “bestelako” hainbeste tresna egotearen arrazoia zera da: artxibo pribatuek dohaintza partikularren erregistro-inbentarioa erabiltzen dutela. Horrelako tresnak inbentario-motaren barruan sar badaitezke ere, artxibo pribatuek egoki iritzi diote “bestelako” tresnatzat jotzea. Gainera, egokiagoztat jo dute unitateka zenbatzea, eta ez mota bakar batean bilduta.

9. irudia. Erabiltzen diren deskribapenerako tresnak. 2009.

DESKRIBAPENERAKO TRESNAK	Guztira
Gidak	41
Inbentarioak	1.896
Katalogoak	190
Datu-baseak	826
Bestelakoak	1.514
Guztira	4.467

10. irudia. Erabiltzen diren deskribapenerako tresnen banaketa. 2009.



2.2. AZPIEGITURA

Artxiboen tamaina neurtzeko, dokumentuak biltegitratzeko erabiltzen duten azpiegitura hartu da kontuan, bi kontzeptutan banatuta: artxibo-erabilerarako erabiltzen den azalera, eta gordailuen eta apalategien edukiera.

Zentzu horretan, artxiboek 90.353 m² hartzen dituzte guztira, eta azalera horren % 89 da artxibo-erabilerarako.

Gordailuen edukierari dagokionez, artxibo-erabilerarako azalera 57.776 m²-koa da ohiko gordailuetan, eta 447.301 ml apalategietan (203.056 apalategi konpaktuetan eta 244.245 ml apalategi irekietan). Betetze-tasa, hurrenez hurren, % 77,2koa eta % 80,2koa da.

Estatuaren artxiboetan dago gordailuen betetze-tasa altuena (% 82) baina, aldiz, apalategien betetze-tasa baxuena dute (% 16,5).

11. irudia. Artxibo-erabilerarako azpiegitura, artxibo-motaren arabera*. 2009.

AZPIEGITURA	Azalera		Gordailuak		Apalategiak		
	M ²	artxibo-erabilerarako (%)	M ²	betetze-tasa (%)	MI konpaktatuetan	MI irekietan	apalategien betetze-tasa (%)
Estatuarenak	14.067	96,3	7.398	82,0	44.070	694	16,5
Autonomikoak	15.306	91,4	9.487	78,6	68.237	12.138	86,6
Administración Local	44.012	91,1	31.122	76,6	78.400	119.596	83,9
Korporazio ofizialenak	5.099	79,3	2.960	63,7	10.425	4.573	89,0
Elizarenak	2.635	87,0	1.476	79,7	0	69.737	96,8
Pribatuak	9.233	69,8	5.333	78,3	1.924	37.508	88,5
Artxiboak guztira	90.353	89,0	57.776	77,2	203.056	244.245	80,2

* Korporazio ofizialen artxiboetako bateko dokumentazioa ez da sartu kalkuluetan, ez delako erantzunik jaso eta ezinezkoa izan delako datuak zenbatzea, haren berezitasuna dela-eta.

Bestelako gordailu batzuk ere badaude dokumentazio berezia biltzeko: euskarri magnetikoak eta argazki-euskarriak batetik, eta formatu handiko euskarriak bestetik. EAEko artxiboen % 10,6an eta % 25,3an daude halakoak, hurrenez hurren. Halere, kontuan hartu behar da dokumentazio berezirako euskarri espezifikoko egoteko edo ez egoteko, artxiboak gordetzen duen dokumentazio-motak zerikusi handia duela, logikoa den bezala.

Artxibo-motaren arabera euskarririk ote dagoen aztertuz gero, ikusiko dugu Tokiko Administrazioaren artxiboek dutela azpiegitura gutxien halako euskarrietarako (% 4,6k ditu euskarri magnetiko/argazki-euskarriak, eta % 21,5ek formatu handiko euskarriak). Horren arrazoia zera da: udal artxibo gutxitan dagoela halako euskarriak behar dituen dokumentazio berezia. Zehazki, biztanle gehien dituzten udalerrietan dago horren premia, eta bertan biltzen dira gehienak, udalei dagokienez.

Bestalde, Estatuaren artxiboek dute halako euskarri gehien: Estatuaren artxibo guztiek dituzte euskarri magnetikoak/argazki-euskarriak, eta % 80k formatu handiko euskarriak.

12. irudia. Artxiboetarako euskarri bereziak dituzten artxiboak, artxibo-motaren arabera. (%-ak). 2009.

EUSKARRIAK	Estatuarenak	Autonomikoak	Tokiko Admin.	Korporazio ofizialenak	Elizarenak	Pribatuak	Guztira
Euskarri magnetikoak/argazki-euskarriak	100,0	42,9	4,6	50,0	20,0	46,2	10,6
Formatu handiko euskarriak (planoak hartzekoak...)*	80,0	42,9	21,5	55,6	80,0	30,8	25,3
Guztira (nolabaiteko euskarriak)	100,0	71,4	23,0	66,7	80,0	53,8	29,2

* Korporazio ofizialen artxiboetako bateko dokumentazioa ez da sartu kalkuluetan, ez delako erantzunik jaso eta ezinezkoa izan delako datuak zenbatestea, haren berezitasuna dela-eta.

EAEko artxiboen % 67,4k segurtasun-sistemak ditu: lapurreten aurka, suteen aurka eta, neurri apalago batean, izurriteen aurka. Estatuaren, Administrazio Autonomikoaren, korporazio ofizialen, Elizaren eta artxibo pribatuen % 80k baino gehiagok ditu halako sistemak.


Dokumentazioa babesteko kontsulta-guneetako girotze-sistemak, aldiz, gutxiagotan ikusten dira: artxiboen % 30,6k baino ez ditu halako sistemak. Estatuaren eta korporazio ofizialen artxiboak dira prestatuen daudenak girotzeari dagokionez.

13. irudia. Segurtasun- eta girotze-sistema duten artxiboak, artxibo-motaren arabera. (%-ak). 2009.

SISTEMAK	Estatuarenak	Autonomikoak	Tokiko Admin.	Korporazio ofizialenak	Elizarenak	Pribatuak
Segurtasun-sistemak	80,0	85,7	64,4	90,0	80,0	92,3
Girotze-sistemak	80,0	42,9	26,4	80,0	40,0	46,2

Bestalde, artxibo gehien-gehienek dute azpiegitura teknologikoa: % 84,7k fotokopiagailua du; % 71,4k eskanerra; eta % 68,8k teknologia informatiko propioa du artxiboaren funtsa informatizatzekeo.

14. irudia. Azpiegitura teknologikoa. 2009.



Erabilizaileentzako kontsulta- eta lan-eremuari dagokionez, kontuan hartu behar dugu askotan ez direla izaten bakarrik artxiboarenak eta bai, aldiz, beste erakunde edo Administrazio batzuekin partekatu beharrekoak. Ondorioz, zaila suertatu zaigu zenbat leku, kontsulta- eta lan-gela dituzten zehaztea. Kontu hori argitu ondoren, gutxi gorabeherako kalkulu bat egin dezakegu, eta hala, esango dugu 214 kontsulta-gela eta 257 lan-gela daudela guztira EAEn.

2.3. ENPLEGUA

EAEko artxiboen 792 langile ari dira, horietarik % 60 Tokiko Administrazioaren artxiboetan. Izan ere, lehen esan dugunez, artxibo gehienak (% 86,4) mota horretakoak dira.


Gainerako langileak honela banatzen dira: Administrazio Autonomikoaren artxiboek langileen % 13,1 hartzen dute; estatuarenak, % 8,3; korporazio ofizialenek, % 7,8; pribatuek, % 6,5; eta, azkenik, Elizarenak, gainerako % 4,7.

EAEn, batez beste, 2,6 langile daude artxibo bakoitzean. Halere, Estatuaren eta Administrazio autonomikoaren artxiboen batez bestekoak askoz ere altuagoak dira: 15 eta 13,2 langile, hurrenez hurren.

15. irudia. Artxiboetako langileak, artxibo-motaren arabera. 2009.

LANGILEAK	Langile-kopurua	Langileen batez bestekoa
Estatuarenak	66	13,2
Autonomikoak	105	15,0
Tokiko Administrazioarenak	470	1,8
Korporazio ofizialenak	62	6,2
Elizarenak	37	7,4
Pribatuak	52	4,0
Guztira	792	2,6

16. irudia. Langileen banaketa, artxibo-motaren arabera. 2009.



Langileen oinarrizko ezaugarritzea egiteko, lan-kategoria, kontratu-mota eta sexua bereiziko ditugu.

Lan-kategoriaren arabera, artxiboetako langileen erdia administrazioko langileak dira (% 50,3), heren bat artxibozainak (% 32,4), eta gainerakoak teknikariak (% 10) eta zerbitzuetako langileak (% 7,3).

Kontratu finkoa da gehien erabiltzen den kontratu-mota: 10 langileetatik 6 lan-erregimen horretan ari dira. Gainerakoak behin-behineko langileak (% 15,4) eta kanpoko langileak (% 20,2) dira. Azkenik, gainerako % 2,7k laguntzaile gisako kontratua du.


Sexuari dagokionez, langileen % 67,4 emakumeak dira. Kontuan izan behar dugu administrazioko langileak asko direla eta kategoria horretan emakumeen ehunekoa handia izaten dela.

17. irudia. Langileak karguaren, kontratu-motaren eta sexuaren arabera banatuta. 2009.


LANGILEAK: KARGUA, KONTRATU MOTA ETA SEXUA	Guztira
KARGUA	
Artxibozainak	257
Langile teknikariak	79
Administrazioko langileak	398
Zerbitzuetako langileak	58
KONTRATU MOTA*	
Finkoa	484
Behin-behinekoa	121
Kanpokoak	158
Laguntzailea	21
SEXUA	
Gizonezkoak	258
Emakumezkoak	533

* Korporazio ofizialen artxiboetako bateko dokumentazioa ez da sartu kalkuluetan, ez delako erantzunik jaso eta ezinezkoa izan delako datuak zenbatestea, haren berezitasuna dela-eta.

18. irudia. Langileen banaketa, karguaren arabera. 2009.




19. irudia. Langileen banaketa, kontratu-motaren arabera. 2009.



Noiz edo noiz, kanpoko zerbitzuak kontratatu behar izaten dira artxiboen funtzionamendurako. 2009. urtean, EAEko artxiboek honako zerbitzu hauek kontratatu dituzte, osorik edo zati batean.

20. irudia. Kanpoko zerbitzuak kontratatu dituzten artxiboen ehunekoa, zerbitzu motaren arabera. 2009.



3. JARDUERA¹

Dokumentazioa gorde eta kontserbatzeko zereginaz harago, artxiboek barneko jarduera bat ere egiten dute. Hau da, dokumentazioa bildu, transferitu eta suntsitzea. Hain zuzen, dinamismo horixe da artxibo-sistemaren bilakaera aldian-aldian ikertu eta aztertzearen arrazoietakoa bat.

Era berean, kanpora zuzendutako jarduera ere egiten dute, kultura eta ondarea erabiltzaileei, bisitariari eta publikoari oro har hurbilarazteko. Zentzu horretan, kontsulta-zerbitzuak, hezkuntza- eta kultura-ekitaldiak eta hainbat dibulgazio-ekintza egiten dituzte.

3.1. BARNEKO JARDUERA

Artxiboen barneko jarduera, batez ere, dokumentazioa biltzean datza (% 75,9).

Metro linealetan artxibatutako dokumentazioaren mugimenduaz gain, unitatetan zenbatzen den dokumentazio berezian ere badago dinamismoa. Zentzu horretan, 2009an 15.590 unitate sartu dira EAEko artxiboetan, 536 transferitu egin dituzte eta 30 suntsitu egin dituzte.

21. irudia. Barneko jarduera: sartutako, transferitutako eta suntsitutako metro linealak, artxibo-motaren arabera*. 2009.


BARNEKO JARDUERA	Sartutako metro linealak	Transferitutako metro linealak	Suntsitutako metro linealak
Estatuarenak	726,4	1,0	123,1
Autonomikoak	3.967,5	13,0	2.054,4
Administración Local	66.740,6	139,0	20.310,6
Korporazio ofizialenak	407,1	0,0	227,2
Elizarenak	90,0	0,0	2,0
Pribatuak	264,8	0,0	25,3
Artxiboak guztira	72.196,4	153,0	22.742,6

* Korporazio ofizialen artxiboetako bateko dokumentazioa ez da sartu kalkuluetan, ez delako erantzunik jaso eta ezinezkoa izan delako datuak zenbatetea, haren berezitasuna dela-eta.

EAEko artxiboen % 12,3k euskarrirako erreproduzitutako dokumentazio-funtsa du. Halere, azpimarratu egin behar da Elizaren artxiboen kasuan, % 60k dituela mota horretako funtsak.

¹ Jardueraren atalean ez da sartu artxibo pribatuetako baten daturik, ez delako erantzunik eman eta, haren berezitasuna dela-eta, ezinezkoa izan delako zenbatete-prozesua ezartzea.

22. irudia. Euskarrirako erreproduzitutako dokumentazioa, artxibo-motaren arabera. 2009.



Zaharberritzeko jarduerari dagokionez, EAEko artxiboen % 15ek zaharberritu du dokumentazioa. Zehazki, 58.277 unitate zaharberritu dira, horietatik 53.672 paper-unitate (% 92,1), 4.305 argazki-unitate (% 7,4) eta 240 pergamino. Gainera, beste 60 unitate zaharberritu dira kartografian, ikus-entzunezkoetan, soinuan edo bestelakoetan (% 0,2).

3.2. ERABILTZAILEARENTZAKO ZERBITZUAK

3.2.1. Kontsultak

Ez dago zerbitzu estandarrik, artxiboetan kontsulta-sistema arautzeko. Artxibo bakoitzak ezartzen du bere ordutegia publikoarentzat, dela ordutegi finkoa zehaztuz, dela adostutako bisitaldien bidez. Era berean, artxibo bakoitzak zehazten du kontsultatzeko eta agiriekin lan egiteko zer baldintza ezarriko dituen.

Artxiboen % 72,4k ordutegi finkoa du, eta EAEko artxibo guztiak, batez beste, astero 24 orduz egoten dira irekita publikoarentzat.

Artxiboetako sarbidea librea edo mugatua izan daiteke. Bi aukera horiek gutxi gorabehera erdibana banatuta daude EAEko artxiboetan. Zentzu horretan, esan behar da Elizaren artxiboen % 40k artxiboaren txartel propioa egiten duela; EAEko artxibo guztiak kontuan hartuz gero, ordea, ikertzaile-txartela eskatzearen baldintza ia hutsala da.

23. irudia. Kontsulta-sistema: asteroko batez besteko ordu-kopurua eta sarbide-mota, artxibo-motaren arabera. 2009.

KONTSULTA-SISTEMA	Estatuarenak	Autonomikoak	Tokiko Admin.	Korporazio ofizialenak	Elizarenak	Pribatuak	Artxiboak guztira
Batez besteko orduak astero	19,0	43,4	23,4	29,2	23,5	23,6	24,1
% Sarbide librea	60,0	14,3	57,9	30,0	40,0	38,5	54,8
% Ikertzaile-txartela	0,0	0,0	1,5	0,0	0,0	0,0	1,3
% Artxiboen txartel propioa	0,0	14,3	0,8	10,0	40,0	7,7	2,3
% Sarbide mugatua	20,0	57,1	41,4	50,0	20,0	53,9	41,9
% ED/EE	20,0	14,3	4,6	10,0	0,0	15,4	5,7

2009an, EAEko artxibo-zerbitzuek 17.000 erabiltzaile izan dituzte (gutxi gorabehera), artxiboen dokumentazioa kontsultatu edo landu dutenak. Gainera, 3,5 milioi kontsulta inguru egin dira.

Elizaren artxiboek izan dituzte erabiltzaile eta kontsulta gehien, nahiz eta sarbidea kontrolatuagoa izan.

24. irudia. Kontsultak: erabiltzaile- eta kontsulta-kopurua, artxibo-motaren arabera. 2009.

KONTSULTAK	Estatuarenak	Autonomikoak	Tokiko Admin.	Korporazio ofizialenak	Elizarenak	Pribatuak	Guztira
Erabiltzaileak	1.098	2.036	38.005	8.976	110.072	9.185	169.372
Kontsultak	10.384	848.369	121.027	193.563	2.272.593	30.495	3.476.431
Aretoan	8.698	27.616	74.171	480	15.068	5.575	131.608
Posta bidez	153	124	568	11	809	1.005	2.670
Web-orrialdetan	38	1.500	6.326	192.070	2.251.985	20.439	2.472.358
Posta elektronikoz*	400	1.178	9.477	365	1.093	2.247	14.760
Telefono bidez	144	917	11.780	266	3.608	1.229	17.944
Instituzioari edo pertsona partikularrari mailegatzea	951	817.034	18.705	371	30	0	837.091


* Korporazio ofizialen artxiboetako baten posta elektronikoko bidezko kontsultak ez dira sartu kalkuluetan, ez delako erantzunik jaso eta ezinezkoa izan delako datuak zenbatestea, haren berezitasuna dela-eta.

Datu orokorrek erakusten dute 10 kontsultatik 7 artxiboaren web-orriaren bidez egiten direla.

Artxibo-motaren arabera, azpimarratu behar da Tokiko Administrazioarenek eta Pribatuek hainbat kontsulta-bide izaten dituztela. Nolanahi ere, bi bide nagusi nabarmen daitezke: Tokiko Administrazioaren artxiboetan, aretoan bertan kontsultatzen da (% 61,3); pribatuetan, aldiz, kontsulta gehienak web-orriaren bidez egiten dira (% 67,0).

Bestalde, gainerako artxiboek kontsulta-bide bakarra dute, erabiltzaileen eskaeren ia % 100i erantzuna emateko. Estatuaren artxiboetan kontsulta-bide nagusia aretoa bera da (% 83,8), Administrazio autonomikoaren artxiboetan kontsulten % 96,3 mailegu bidez egiten da (erakundeari edo pertsona partikularri mailegatuta), eta korporazio ofizialen eta Elizaren artxiboetan, web bidez egiten dira ia kontsulta guztiak (% 99,2 eta % 99,1 hurrenez hurren).

25. irudia. Kontsulta-moten banaketa, artxibo-motaren arabera. 2009.



3.2.2. Hezkuntza/kultura alorreko eta dibulgazioko ekitaldiak

Artxibo batzuek dokumentazioari eta artxiboaren gaiari lotutako hezkuntza- eta kultura-ekitaldiak antolatzen dituzte edo antolatzen laguntzen dute. 2009an zehar, EAEko artxiboen % 15ek hitzaldiak, ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak, bisita gidatuak edo erakusketak antolatu ditu; 484 ekitaldi guztira.

Administrazio Autonomikoaren artxiboak dira halako ekitaldiak egin ez dituzten bakarrak, nahiz eta inoiz musika-ekitaldiren bat antolatu duten.

Orokorrean, Tokiko Administrazioaren artxiboek garatu dute hezkuntza/kultura-jarduera handiena, euren oinarrizko eginkizunaz harago. Izan ere, euren antolatu dute ekitaldien % 50. Logikoki, halako artxiboak hainbeste izanik, batez bestekoa apalagoa da: hain zuzen, ekitaldi bana antolatu dute. Kopuru hori Estatuaren edo Elizaren artxiboek antolatutakoena baino askoz ere txikiagoa da, mota horietako artxiboek batez beste 11 eta 10 ekitaldi antolatu baitituzte batez beste, hurrenez hurren.

Bestalde, Elizaren artxiboen % 80k hezkuntza/kultura-ekitaldiren bat antolatu du, eta ondoren datoz korporazio ofizialen artxiboak (% 60).

Antolatutako ekitaldiez gain, artxiboen % 17,3k liburutegi osagarri bat du, eta bertan biltzen dira, gutxi gorabehera, 435.951 liburu. Ekipamendu horiek 15.675 aldizkako argitalpen dituzte eta, horri esker, eguneratuta egoteko aukera dute.

26. irudia. Hezkuntza/Kultura alorreko zerbitzuak, artxibo-motaren arabera*. 2009.

HEZKUNTZA/KULTURA ALORREKO ZERBITZUAK	Estatuarenak	Toki. Admin.	Korporazio ofizialenak	Elizarenak	Pribatuak	Artxiboak guztira
Hezkuntza/Kultura alorreko zerbitzuak dituzten artxiboen ehunekoa**	20,0	10,0	60,0	80,0	30,8	15
Hezkuntza eta kultura alorreko zerbitzuen kopurua	54	250	64	52	64	482
Hezkuntza eta kultura alorreko zerbitzuen batez bestekoa	11	1	6	10	5	2

* Ez dira sartu Administrazio autonomikoaren artxiboak, ez dutelako hezkuntza edota kultura alorreko inolako zerbitzurik.

** Hitzaldiak, mintegiak, bisita gidatuak, erakusketak.

27. irudia. Izenburu-kopurua eta aldizkako argitalpen-kopurua, artxibo-motaren arabera. 2009.

IZENBURUAK	Estatuarenak	Autonomikoak	Toki. Admin.	Korporazio ofizialenak	Elizarenak	Pribatuak
Izenburu-kopurua	12.785	12.762	125.211	149.025	12.183	123.984
Aldizkako argitalpen-kopurua	226	289	2.982	5.269	75	6.833

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>.



Argitaraldia: 1.a, 2011 ko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa: AIC, Gestión de Capital Intelectual S.A. - www.factoria-aic.com